

Fagor Industrial arduratu da Wanda Metropolitanoko estadio berriko ostalaritza-ekipamenduaz

- Oñatiko enpresak ekipamenduak instalatu ditu 84 VIP palkoetan, baita satelite-sukaldeak eta publiko orokorarentzako barrak ere.
- Atlético de Madrid taldeak, Centerplate kide amerikarrarekin batera, gastronomia-kontzeptu berritzaile baten aldeko apustua egin du estadio berrian.

Madril, 2017ko irailaren 26a. – Atlético de Madrid futbol-taldeak eta haren kideak, kirol-ekitaldietarako gastronomian espezializatutako Centerplate enpresa amerikarrak, **Fagor Industrial** aukeratu dute, ostalaritza, talde handientzako sukaldaritza eta garbategien sektorearentzako ekipamenduak fabrikatzen liderra den enpresa, ireki berri den Wanda Metropolitanoko estadioko ostalaritza-ekipamenduak instalatzeko.

Instalatutako ekipamendua Wanda Metropolitanoko estadioko bederatzi mailetan dago: 84 VIP palkoetan, bukaera-sukalde guztietan, VIP eremuetako barretan, publiko orokorarentzako barretan eta *fan zones* deritzen kanpoaldeko eremuetako edukiontzietan.

Centerplate-ren taldeko sukaldari exekutiboa **Jose Sánchez jauna** da, VIP eserlekuetako 7000 ikusleentzako eskaintza gastronomiko zabala sortu duen pertsona; halere, bere kolaboratzaileekin, gainerako eremuetarako aukerak ere garatu ditu, tartean publiko orokorarentzako barretarako eta *fan zones*-erako.

Aparteko eskaintza horren eskakizunak betetzeko, hauek dira proiektu handi honetarako hautatu diren ekipamendu batzuk: **Advance Plus belaunaldiko labeak, KORE belaunaldiko 900 gama berriko** egosketa-ekipamenduak eta Advance gamako **mahaiak eta hozte-armairuak. Tresnak garbitzeko ekipamenduei** dagokienez, **arraste-saskien bidezko ekoizpen handiko makinak eta laguntzeko kupula-makinak** erabili dira.

Gainera, instalatutako produktu askok estadioaren beharretara egokitzeko diseinu berezi eta bakarra dute. Gehienbat, Fagor Industrial-ek jarri du ekipamendu gehiena, baina ONNERA Group taldearen beste marka batzuk ere badaude, hala nola Inoxfera, Efficold eta Edenox.

Berritasun gisa, klubak estadio jasangarri bat izateko duen helburuari eutsiz, **CO₂-a biltzeko zentralak dituzten hozkailuak instalatu dira hozte-gordetegi orokorretan (*warehouse*) eta sukalde zentralako (CPU) ganbera eta gela hotzetan.** Atlético de Madrid aitzindaria izan da halako zentralak instalatzean, berotze globalean eraginik ez duen hozgarri erabat naturala baitute, eta ez baitute zergarik ordaindu behar, beste gas batzuek ez bezala. Ildo horretan eta berrikuntzari helduz, bero-trukagailu bat instalatu da zentrolean, 1 l/s-ko emariaren bidez sareko ura 60 °C-ren gainetik berotzeko.



ONNERA GROUP



Bi urtez ekipamendu berritzaile bat neurrira egiteko lan egin ondoren, Wanda Metropolitano estadioaren ateak ireki egin ziren joan de iraileko 16an. Inaugurazioko partiduan, bete egin ziren estadioko 68 000 eserlekuak.

«Fagor Industrial oso harro dago Wanda Metropolitano estadio berriaren parte izateaz», baieztatu du Javier Sánchezek, Fagor Industrial-eko kolektibitate handien zuzendari orokorrak. «Tamaina honetako bezero batek gudan konfiantza jarri izana ez da arrazoi bakarra; aitzitik, estadioaren gastronomia-kontzeptua erabat berritzailea izatea eta Espainiako beste estadioetara estrapolatu ahal izatea ere badira harro egoteko arrazoiak. Wanda Metropolitano estadioan, ikusleen eskura eskaintza gastronomiko zabalagoa jartzearen aldeko apustua egin dute», esan du, bukatzeko.

Fagor Industrial-i buruz

Fagor Industrial, Mondragon-en integratutako kooperatiba, ostalaritza, talde handientzako sukaldaritza eta garbitegien sektorearentzako ekipamenduak fabrikatzen liderra da, eta munduko sukalde eta instalaziorik onenetan aurki daiteke. 50 urte baino gehiagoko esperientzia du, eta ostalari profesionalen egunerokoa eta beharrianak ezagutzen ditu; horrela, marka bakarraren izenpean, produktu-gama osoa eskaintzen du Fagor Industrial-ek. ONNERA Group nazioarteko enpresa-taldeko parte da, mundu osoan 8 lantegi dituena eta 1800 pertsona baino gehiago enplegatzen dituena.

Informazio gehiago eskatzeko edo elkarrizketak kudeatzeko, jarri gurekin harremanetan hemen:

LEWIS
Marina Obrero / Nuria Mañá
FagorSpain@teamlewis.com
917 701 516



ONNERA GROUP



Together we evolve

www.fagorindustrial.com